

txintxarri



Itsasoa zaintzeko filmak

Nazioarteko Itsaspeko Zinema zikloan Cesare Maglioniren 'Hondar2050' lana eskainiko dute astelehenean / 8-9

Adostasun bila

GuraSOsek manifestaziora deitu du, hondakinen auzian gizartearen parte hartzea eskatzeko / 6-7

Alokairu sozialen eta hirigintza ereduaren inguruan eztabaidatu dute udalbatzarrean / 2

Ligaxkako partida guztiak irabazi arren, binakako finala galdu du Ane Arteagak Zestoan / 10



600 857 586 
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

HEZEGAILUAK

Orbegozo HUA 3000
Hezegailu ultrasonikoa.
Aromaterapiarekin. Bereziki haurtxoentzat



HUMI-ED
Ultrasonikoa. LCD pantailaduna. Hezetasun erlatiboa, giro temperatura neurtzen ditu



HEZETASUNA KENTZEKO MAKINAK



Orbegozo DH 1036 **Kayami DN 16-E** **DAITSU ADDE-20**

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Udal zinegotziak, PSE-EEren alokairu sozialen aldeko mozioa bozkatzeko. TXINTXARRI

Hirigintza ereduaren inguruan egin dute talka

Oposizioak auzitan jarri du udalerriko etxebizitza eredu, Zataraingo bideak sortutako arazoak baliatuta. PSE-EEK proposatutako alokairu sozialen mozioa aurrera atera da, ez, ordea, EH Bilduk aurkeztutakoa. Musika Eskolako arazoak azaleratu dituzte

Adrian Garcia

Ehun egun inguru falta dira udal hauteskundeetarako, eta eragina nabaritzen hasi da dagoeneko udalbatzarrean. Oportunistak izatea leporatu diote elkarri alderdi politikoek, eta asko hazi da aktibitatea; bi ordu inguru iraun zituen joan den asteartekoak, eta, presaz sartutako mozioak kontuan hartuta, bederatzita puntuak izan zen gai ordena. Galdera eta erreguen orduan ere izan da tirabira, Urnieta bideko baserriarrak kexatu baitira sarrera-irteerarako erabiltzen duten bide baten noranzko aldaketarengatik.

Eraikuntzaren inguruan ardatzu da batzarra, bi moziok aurreikusten zutelako etxebizitza sozialak sortzea. Bi alderdi nagusiek, PSE-EEK eta EH Bilduk, aurkeztu dute proposamen bana. Baina ez dira ados jarri; norberak berea babestu du, eta bestearenaren aurka egin du.

Honenbestez, PSE-EEren proposamena atera da aurrera, aldeko hamar boto eta kontrako laurekin. Babes publikoko etxebizitzak alokairuan egiteko Oria-Gain lursaila Eusko Jaurlaritzari doan emateko hitzarmena onartu du batzarrek. Ehun etxebizitza egingo dituzte.


Alokairu sozialak

Bestalde, EH Bilduk proposatu du Hipodromo etorbidean udalak dituen 39 etxebizitza berriekin alokairu soziala bultzatzeko udal parke publikoa egitea, baina bakarrik geratu da.

Udalerraren urbanizazio ereduaren ingurukoa izan da eztabaida nagusia. Horretan talka egin dute Agustin Valdivia PSE-EEko Hirigintza zinegotziak eta Pablo Barrio EH Bilduko ordezkariak. "Sustatzailen mesedeetan eginiko politika" salatu du Barriok. Valdiviak, ordea, leporatu dio alkate izandako garaian alokairu sozialik ez bultzatzea.

EAJk aurkeztutako bi moziok ere zerikusia dute eraikuntzarekin. Batetik, eskatu du Kotxerasko TSSTko eraikina botatzeko agindua bertan behera uzteko, eraikin historikoa delako. Baita Urnieta bideko bizilagunentzako bidearen noranzkoa aldatzea ere. Halere, nahiz eta EH Bilduren babesa izan, ez da nahikoa izan aurrera egiteko, PSE-EEK aurka bozkatu eta ADLOP Ahal Dugu Lasarte-Oria Puede abstenitu egin delako.

Edonola ere, udalbatzarrek izan ditu adostasun guneak. Esaterako, aho batez onartu dute Sahararen aldeko manifestua, Euskal Herriko Lagunak Sahara Mendebaldearekin Bat elkarrekin eskatuta. Baita Musika Eskolako ikasle eta gurasoena ere, udalerraren tamainaren araberrako eskola bat izatea eskatzeko. Izan ere, biztanlerian pareko diren beste herriekin alderatuta, eskasa da eskolak eskaintzen duen zerbitzua.



Udal ordezkariak eta kanpainako arduraduna, agerraldian. TXINTXARRI

Elkarbizitza arazoak ikustarazteko kanpaina

Txakurren jabeak gorotzak jaso dezaten kontzientziatzeko kanpainarekin jarraituko du Lasarte-Oriako Udalak

Txintxarri

Txakur jabeen, animalien eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak *Udalerrri Lagunkoi baten alde. Jabe eredugarria nahi dut. Konpromisoa hartuko duzu?* kontzientziatze kanpaina egin zuen 2018an. Horri jarraipena eman nahian, hilabete hauetan arazoak ikustarazteko kanpaina berria egingo dute, udal ordezkariak eta kanpainaren arduradunak egindako agerraldian azaldu dutenez.

Kanpaina berri horrek hiru helburu izango ditu. Lehena, jabeen sentsibilizazioa lantzea da. Bestetik, txakurrak lotuta joan behar direla ohartaraziko dute, betiere, aske ibili daitezkeen eremua ez bada. Arriskutsuak diren txakurrek, gainera, muturrekoa eta identifikazio txipa izan behar dituztela gogoraraziko diete jabeek.

Auzoz auzo egingo dute ekimena. Lau asteko iraupena

du, eta bi zatitan banatuko da; bata otsailaren 11tik 22ra, eta bestea, martxoaren 25etik apirilaren 5era.

Txakurren gorotzei dagokionez, haien kokalekua zehaztuko dute berdegune eta kaleetan. Horretarako, banderatxo gorriak jarri eta kleraz markak egingo dira. "Kanpaina berri honek arazoaren larritasuna agerian utzi nahi du. Horregatik, FCC enpresak ez ditu banderatxoak eta lurreko markak kenduko", esan du Jesus Zaballos alkateak.

Horrez gain, araudia betetzen ez duten jabeek poltsak banatu eta udal araudiari buruzko informazioa eskainiko die teknikariak. Halaber, udal araudia betearaztearen ardura udaltzainena izango da. "Kanpainan zehar, udaltzainak izango dira ohartarazpenak egin eta isunak jarriko dituztenak. Hala ere, gure nahia ez da dirua lortzea. Kontzientziatze landu nahi dugu".

Bide-seinaleak ordezkatzeko dituzte Lasarte-Oriako Udalak

Lasarte-Oriako Udalak Señales Girod S.L. enpresa kontratatu du. Enpresa bide-seinale hornitzailea da, eta udalak hainbat seinaleen eskaera egin dio. Seinaleen kostua 6.228 eurokoa da.

Seinale berri horiek udalerrian hautsita edo egoera txarrean daudenak ordezkatzeko erabiliko dituzte.

Beharra duten gizataldeei, diru laguntzak

Gizarte Zerbitzuak sailak 18.702 euro eman dizkie Lasarte-Oriako beharra duten gizataldeen alde lan egiten duten 13 entitatari. Agifes, Izan Fundazioa, Ademegi, Alcer-Gipuzkoa, Atece Gipuzkoa, Ortzadar ekimeneko Heltzen Proiektua, Adahigi, Gautena, Nagusilan, AGI, GBGE, Agipase eta Agiac dira elkarrekin.

David Ares, Podemos Lasarte-Oriaren alkategai

Podemos Lasarte-Oriak jakinarazi du David Ares Rodriguez izango dela alderdiaren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetarako. Bozen %70 jaso ditu Ahal Du Lasarte-Oria Puede alderdiko zinegotziak. Zazpi pertsonak osatzen dute zerrenda

Txintxarri

Gero eta gutxiago falta da datorren maiatzeko udal hauteskundeetarako. Alderdiak zerrendak osatzen ari dira, hautagaiak aukeratzen eta programak prestatzen. Podemos Lasarte-Oriak iragarri du David Ares Rodriguez izango dela euren alkategaia. Botoen %70 bildu ditu. Bestela esanda, hamar pertsonatik zazpi bozkatu dute haren alde. Miguel Angel Tolosa ere aurkeztu zen alkategai izateko, baina babes gutxiago jaso zuen.

Ahal Du Lasarte-Oria Puede alderdiko zinegotzia da Ares. 35 urte ditu; 11 zituenean etorri zen herrira, eta bertan bizi da orduz geroztik. Humanitateak eta Komunikazioa lizentziatura dauka, eta hainbat hedabidetan egin du lan erredaktore eta kolaboratzaile gisa. 2015eko maiatzaz geroztik da zinegotzi.

Otsailaren 2an egin zituen hauteskunde primarioak Podemos Lasarte-Oriak, Manuel Lekuona kultur etxeko hirugarren soilairuko geletako batean. 10:00etatik 13:00etara egon zen zabalik hautestontzia. Alkategaia ez ezik, hauteskundeetan aurkeztuko duten zerrendako kideak ere hautatu ditu alderdiak. Hauek izango dira: David Ares



David Ares izango da Podemos Lasarte-Oriaren alkategaia. AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE

(97 puntu lortu ditu), Tania Rodriguez (91 puntu), Miguel Angel Tolosa (69), Beatriz Aygues (65), Alexander Pozo (57), Elena Murillo (53) eta Alejandro Herrero (45). Hogei pertsonak bozkatu dute hauteskundeetan. Estatu osoan otsailaren 1etik 6ra egin zituen hauteskunde primarioak alderdiak; guztira 715 prozesu egin dira, eta 6.500 hautagai baino gehiago aurkeztu.

Podemos Lasarte-Oriako kideek esan dute hauteskundeetarako programa prestatzen hasiko direla orain. "Lasarteoriatarrek

eta elkarte eta entitate guztiakin batera" egin nahi dute lanketa. Iragarri dute guztiakin elkartuko direla datozen hilabeteetan.

Bilera irekia otsailaren 25ean

Hamabostean behin bilera irekiak egingo ditu alderdiak. Astelehenean elkartu ziren aurrenekoz, kultur etxeko hirugarren solairuko 3 zenbakidun gelan. Hilaren 25ean egingo dute hurrengo bilera. Astelehenean izango dira hitzordu guztiak, 18:00etatik 20:00etara. Herritar guztiak joan daitezke horietara.

Lasarteoriatarrek Aspanogiren martxarekin bat egingo dute

Haur minbizidunen eguna gogora ekartzeko martxa berezia antolatu dute igandean, Donostian

Txintxarri

Gaur, otsailaren 15a, haur minbizidunen eguna da. Hori gogora ekartzeko, Aspanogi elkarteak martxa antolatu du igandean, Donostian. Oinezkoek eta ipar martxalariak parte hartu

ahalko dute ekimenean. 11:00etan Saguesetik atera eta Haize Orrazian amaituko dute martxa. Porrotx eta Ostadar Ipar martxako kideek ez dute hutsik egingo. Herritarrek gonbidatu dituzte ekimenean parte hartzera.



Herritarrek eta Porrotx. OSTADAR IPAR MARTXA



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

Deskolokatu xamar azkenaldian

Deskolokatu xamarra nago aspaldian. Mugak lausotu dira. Katalunian herriari bere etorkizunaz galdetzeagatik buruzagiak kartzelatu dituzte eta egun hauetan epai fartsa bat muntatuko diete bertan jarrai dezaten. Europa zaharreko demokratek txintik ez dute esan. Venezuelan berriz, Guaido delako batek bere burua lehendakaritzat jo du eta Europa zaharreko "demokratek" beraien iritzia (aldekoa gehienek) batere konplexurik gabe eman dute. Esango nuke zenbait garaitan gutxiagotatik armak dantzan jarri izan direla.

Nik gure herrian aspaldion ikusten dudanari buruz bakarrik emango dut nire iritzia. Batetik, individualismo bortitz batek jota bizi gara. Neurea, neurea eta neurea bakar bakarrik interesatzen zait. Bai, hala da. Jende asko ikusten dut horrela. Kapitalismo, kontsumismo, eta beste "ismo" batzuen atzaparretan zeharo galduta. Baina bai egia da ere, taldearen mesedetan lan egiten duenik badela zorionez.

Esate baterako: Gure Esku Dagok egin duen lana autodeterminazio eskubidearen alde. Identitatea sendotuz.

Euskaraldia. Oraindaino horrelakorik ez dugu bizi izan. Euskararen alde egotetik, bakoitzaren konpromiso publikora.

Martxoak 8. Iazkoak muga bat jarri zuen eta aurtengoa ere bikaina izango da. Arlo honetan asko dago egiteko, noski, baina heteropatriarkatuari planto! Esango nuke inoiz baino osasuntsuago dagoela.

Jubilatuak. Mobilizazioak beti jende gaztearen gauza zirelakoan geunden. Ba, ez jaunak eta andreak, eredu bikaina ematen ari dira adinekoak. Beraien eskubideengatik eta gurengatik borrokatuz.

Erraustegiaren aurkako mobilizazioak. Izadia eta osasuna arriskuan jartzen dituzten proiekturik ez dugula nahi. Argi eta garbi geratu da. Obra hori egiten ari diren enpresek diseinatutako ezkutuko komunikazio plana azaldu zuen joan den igandean kultur etxean GuraSOS taldeak. Lan bikaina hauena ere. Eta beste borroka asko giza eskubideen inguruan adibidez. Mobilizazioa eraginkorra dela frogatua dago. Bestela zer dela eta hasi dira orain Espainiako eskuindarrak manifestazioak deitzen?

Euskal Inauteriek herria alaituko dute otsailaren 23an

Egun osoko egitaraua izango da. Goizean puska bila aterako dira, eta arratsaldean, kalejira handia izango da

Txintxarri

Euskal Inauteriek Lasarte-Oriako kaleak euskal doinu eta dantzekin beteko dituzte, Inauterien aurrekari bezala. Otsailaren 23an, larunbata, egun osoko egitaraua antolatu du Euskal Inauterietako lan taldeak.

Goizean, txantxoak elkarte elkarte puska bila joango dira. Ibilbidea alaitzeko txistulariak izango dituzte lagun.

Arratsaldean, 16:30ak aldera, Zubietatik aterako da desfilea. Hipodromoko zubian zain izango dituzte Euskal Inauterietako alkatea eta korporazioa harrera egiteko. Senidetze dantza egin ostean, erdiguneko kaleetan zehar, kalejira egingo dute Okendo plazan amaituz.



Loidibarrenen izan zen iaz ekitaldia. TXINTXARRI

Izurriteak irudikatzen dituen Kaxkamalo erreko da orduan.

Egitarauari amaiera emateko, Ttirriki Ttararak erromeria eskainiko du eta txokolate jana dastatuko dute.



Mendebaldeko Sahararen aldeko jardueren aurkezpenen hainbat udal ordezkariaren babesa jaso zuten antolatzaileek. TXINTXARRI

Sahararekiko elkartasun egunak prestatu dituzte

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik 43 urte beteko dira hilaren 27an. Horren harira, elkartasun ekimenak egingo ditu Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak. Udalaren babesa jaso dute antolatzaileek

Txintxarri

Mendebaldeko Saharako herriaren egoera salatzen eta elkartasuna adierazteko helburuarekin Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak hainbat jardura prestatu ditu. Haien berri eman zuen Tomas Arrutik, Salec Mohamed sahararrak, Monika Rosales Oporrak Bakean ekimeneko kideak eta Furia Beltza tabernako Oier Txoperenak lagunduta. Halaber, bere babesa adierazi zieten EH Bilduko Pablo Barrio eta Ahal du Lasarte-Oria Pudeko zinegotzi Alicia Garcia, Arkaitz Naya eta David Ares zinegotziak.

Udan haurrak hartzen dituzten familien kopurua murrizten ari dela-eta kezkatuta daude antolatzaileak. Izan ere, aurreko urteetan bost bat haur saharar etorri dira herrira; aurten, ordea, "oraingoz" bi besterik ez dira. Egoera iraultzeko xedez, Rosalesek bere bizipenaren berri emango du *Orain bi familia ditut* hitzaldian. Hiru urtetan haur

bera ekarri du eta lekukoa hartzen animatuko ditu familiak. Asteazkenean, 19:00etan.

Larunbatean, berriz, zapora sahararrak dastatzeko parada izango da Furia Beltza tabernan.

Jarira, kuskusa barazkiekin, arkumea eta postrea jateko aukera izango da 15 eurotan, kafea eta edaria barne. Mahaira eseri nahi dutenek tabernan bertan izena eman behar dute.

Azkenik, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 43. urteurrenaren harira, hilaren 27an elkarretaratzea egingo dute *Maroko Sahararik at. Independentzia Sahararentzat* lelopean. Asteartean, udalbatzarrak bere babesa adierazi zion jarduerari eta herrialdearen bandera zintzilikatuko du egun horretan udaletxean. Arrutik eskerrak eman zizkien udal ordezkariari elkarteak aurkeztutako mozioa babesteagatik. Lurralde okupatutetan gertatzen diren eskubide zapalketa, mugimendu askatasunaren mugaketa, nahiz baliabide naturalen lege kanpoko ustiaketa salatzen ditu idatziak, baita autodeterminazio eskubidea aldarrikatu ere.

Egitaraua

Asteazkena 20

- **Orain bi familia ditut** Hitzaldia, Oporrak bakean. Antonio Mercero aretoan, 19:00etan.

Larunbata 23

- **Bazkari sahararra.** Furia Beltza tabernan, 14:00etan.

Asteazkena 27

- **Elkarretaratzea.** Okendo plazan, 19:30ean.



Jon Martin, EH Bilduko lantaldearekin batera. TXINTXARRI

Lokal berria inauguratu du EH Bilduk, boz kanpainarako

Jon Martin hautagaia aurkezteko baliatu dute ekitaldia. Kanpainaren gidalerroak zehaztu ditu zerrendaburuak

Txintxarri

Okendo plazan bertan izango du EH Bilduk hauteskundeetarako egoitza. Atzo bertan, ostegunean, inauguratu zuten lokal berria, Kattagorri jolas denda izandakoan. Herritarrak edatera eta mokadutxoak jatera gonbidatu zituzten, eta hautagai berria eta alderdiko lantaldea aurkezteko baliatu zuten. Jon Martinek hartuko dio lekukoa Pablo Barriori.

Hautagaia finkatuta badute ere, zerrendakideak aukeratzeko prozesua ez dago itxita. Izan ere, martxoaren erdialdera arte ezingo da jakin ofizialki nork lagunduko duen Martin udal bozetarako zerrendetan. Edonola ere, babestuta agertu zen hautagaia, Lasarte-Oriako EH Bilduko lantaldeak lagunduta. Tartean daude Uxue Loinaz, Joxe Pikabea, Estitxu Garmendia eta Asier Gorostegi.

Barrio bera ere egon zen aurkezpenen: "Ziklo bat itxi dugu". Izan ere, zerrendak oraindik zehaztu gabe egon arren, gauza bat ziurra da: legealdi honetan egon diren zinegotziek ez dute jarraituko. "Zortzi urteren ondoren, jende berria sartuko da, eta guk baino hobeto egingo dute, ziur nago".

Martinek ere aprobetxatu zuen hitza hartzeko, eta bozetara begira alderdiaren asmoen zertzelada batzuk eman zituen.

Herriko elkarte eta erakundeekin elkarlana jarri nahi du erdigunean. "Arlo askotan lan egiten duten elkarteak daude. Egunero-egunero egiten dute Lasarte-Oria biziagoa eta aberatsagoa. Udalaren jarduna sinkronizatu nahi dugu elkarte horiekin guztiekin". Lan horren bidez, "herri kohesionatuagoa" egitea du helburu.

Euskara eta parekidetasuna

Horrez gain, EH Bilduren gidalerroak zehaztu zituen. Izan ere, lan egiteko moduetan bi oinarri finkatu zituen Martinek: parekidetasuna eta euskara. "Betaurreko more batzuk jantzita izango ditugu". Lasarte-Oria hizkuntzaren normalizazioan erreferentzia izan dela azaldu zuen, eta bide horretan aurrera egin nahi du EH Bilduk. "Euskararen aldeko apustuari indar berriak emango dizkiogu".

Horretarako "talde indartsua" duela nabarmendu zuen. "Taldea polita sortzen ari gara. Konfiantza eta ilusio handia eragiten digu. Erronka hau aurrera aterako dugu".

MARTXOAN ZEHAZTUKO DITU ALDERDIAK ZERRENDAKIDE GUZTIAK

Apellidunak abizendun

Acha	Atxa
Aguirre	Agirre
Ansa	Antsa
Berasategui	Berasategi
Echeverria	Etxeberria
García	Gartzia
Gil	Xil
Goicoechea	Goikoetsxa
González	Gontzalitz
González de Mendivil	González Mendibilko
Gorochategui	Gorrotxategi
Gurruchaga	Gurrutxaga

Iparraguirre	Iparragirre
Izaguirre	Izagirre
Lascuain	Laskuain
Lerchundi	Lertxundi
López	Lopitz
Mendivil	Mendibil
Michelena	Mitxelena
Ochoa	Otxoa
Olloquiegui	Ollokiegi
Pérez	Peritz
Pérez de Mendiola	Peritz Mendiolako
Urretavizcaya	Urretabizkaia

ikus gehiago: www.euskaltzaindia.eus (Hizkuntza-baliabideak / Onomastika / Deiturak)

Eskuratu beharreko agiriak:

Errolda agiria

(Udaletxeko bulegoetan).

Jaiotzagiri literala

(Bake Epaitegian).

NANaren fotokopia

Famili liburua

(Ezkonduta edo seme-alabarik izanez gero).

Egin beharrekoak:

Agiriak herriko Bake Epaitegira eraman.

(Udaletxean bertan).

Informazio gehiago:

Euskara-zerbitzua: 943 376 184 | Bake-epaitegia: 943 371 629

"Argi utzi nahi dute herri honetan nork agintzen duen"

JOXE MARI IZETA GURASOS ELKARTEKO KIDEA

Gizarteak bultzatutako parte hartze prozesua aintzat hartzeko eskatu du GuraSOSek, eta manifestaziora deitu du, hurrengo larunbaterako. Izetaren ustetan, adostasunari uko egin dio aldundiak: "Garaileen eta galtzaileen arteko auzi baten moduan hartu dute"



Joxe Mari Izeta, GuraSOSeko kidea. TXINTXARRI

Adrian Garcia

Erraustegiaren auzia erabat politizatuta egon da Gipuzkoan, eta, hain zuzen, GuraSOS elkartearen helburua izan da gai hori gizarteratzea. Hurrengo hamabost urteetarako hondakinen kudeaketaren plan berria onartzekotan da Gipuzkoako Foru Aldundia, erraustegiaren lanak amaitzear daudela. Joxe Mari Izeta (Usurbil, 1966) elkartearen arabera, martxoaren 6rako nahi du aldundiak plan hori onartu, hauteskundeak egin baino lehen. Horregatik deitu dute hurrengo larunbatean, hilaren 23an, manifestaziora. Donostiako Antiguako tuneletik abiatuko dira, 17:00etan. Hitzartu parte hartze prozesuaren bidez adostu zuten plana ere aintzat hartzea nahi du elkarteak. "Bi planak mahai gainean jarri nahi ditugu, adostasun batera iristeko".

Hurrengo hamarkadarako hondakinen kudeaketa plana onartzear du aldundiak. Zer dakizue plan horri buruz?

Badakigu erraustegia dela plan horren ardatza. Erraustegia egiteko erabakia hartuta zegoen, eta gero plana horren arabera egin dute. Batzar Nagusietan ez dizkiote zuzenketa partzialak egin, osokoak baizik.

Salatu duzue estrategia komunikatiboa itzalpeko talde batek egin duela.

Komunikazio hori aurrera eramateko asmoa 2016ko ekainekoa da, obrak oraindik adjudikatu gabe zegoeneko. Urbaser eta Meridiamek prestatuta zuten estrategia komunikatiboa, herritarrak eta gu bezalako talde eragileak neutralizatzeko, eta pasibotasuna sustatzeko. Ez dute informatzeko asmorik.

Zertan oinarritu da propaganda hori?

Gauza asko saldu dituzte, esaterako, Gipuzkoa erdiarentzat argindarra sortuko dutela. Gezurra da hori. Argindarra sortuko da gas piloa sartuko dutelako. Plastikoa eta organikoa erretzen badituzu, nolako sua sortuko du horrek? Eufemismo eta izen polit asko erabili dituzte. Tximinia gabe saldu dute irudia. Baina, gutxienez, hiru daramatza. Herritarrak inozoak eta umetxoak izango bagina bezala tratatzen gaituzte.

Hedabide handiek ere ezkutatu egin dute gaia.

EITBren kasua da nabarmena. Noiztik hedabide publiko batek behar ditu horrenbeste sinadura gai horren garrantzitsu bati buruz eztabaidatzeko? Hor ikusten da informazio falta. EITB eta *Diario Vasco* izan dira aldundiaren ildoari jarraitu dioten hedabide handiak.

Hitzarturen bidez osatutako kudeaketa planak zer ondorio atera ditu?

Osasunak duela lehentasuna. Horixe da planaren ardatza. Bestalde, ondorio argia da informazio falta ikaragarria egon dela. Propaganda asko bai, baina informazio objektiborik ez.

Neurketak egiteko instalazioa jarri dute Tximistarreta parkean.

Guk ekarritako zientzialariek diotenez, Rodriguez Farrek eta Fernando Palaciosak, badaude hamabi toxina neurtuko ez dituztenak. Ez dute esan nola egingo dituzten neurketak, baina orain badakigu: urtean behin egingo dituzte, eta jakingo dute zein egunetan, filtroak eta beste trikimailuak erabiltzeko ahalik eta neurri baxuenak emateko. Oso tranpatia da dena. Esku pribatuetan egongo denez, kontrol zorrotzagoak egiteko aukera galdu egin da.

Erraustegiaren kontratua ere lortu duzue. Zer nabarmendu daiteke?

Ez du zehazten nongo zaborrak jasoko dituzten. Aipatzen du tipologia, baina ez jatorria.

"SOILIK ETENGABEKO PRESIO SOZIALAK GELDIARAZI DEZAKE ERRAUSTEGIA ETORKIZUNEAN"

GHK-k bidaltzen dizkion zaborrak hartuko dituzte, baina enpresa pribatua denez, beste edozein tokitakoak ere erre ditzakete, prezio baten truke. Gainera, gaindimentsionatuta jarraitzen du. Bi labe ditu; alegia, bikoitza erre dezake. Informazio gutxi jaso dugu. Bestela, herritarrek agian beste jarrera bat hartuko lukete.

Ondo lotuta utzi du aldundiak dena.

Diru laguntzen diktaturapean bizi gara. Jende askok esan digu gure alde dagoela, baina ezin duela ezer egin, diru laguntzak jasotzen dituelako; beldur dira galdu egingo ote dituzten.

Aldundiarekin biltzea lortu al duzue azkenean?

Ez. Hiru urtean ez dira gurekin egon, nahiz eta GuraSOSek hartu duen oihartzuna gizaratean. Baina bilera batera ere ez gaituzte gonbidatu, entzutea sikiera. Hor ikusten da zer begirune duten herritarrekiko.

Hogei urte baino gehiago daramate proiektu hori egin nahian.

Garaileen eta galtzaileen arteko auzi bat bezala hartu dute. EH Bilduk gelditu zuen erraustegia, eta, orain, gehiengo berreskuratu dutenez, edozein modutan egingo dute, garestiagoa izan arren. Ez da ingurugiro arazo bat, baizik eta herri honetan zeinek agintzen duen argi uztea.

Begi bistakoa da erraustegia egin egingo dutela. Ba al dago aukerarik geldiarazteko?

Hasierako helburua zen martxan ez jartzea, baina errealistak izanda, hurrengo helburuak izan beharko luke bost urte baino lehenago ixtea. Geldiaraziko bada, presio sozialarengatik izango da. GuraSOSek edo beste talde batek erraustegiaren gainean zaintza zorrotza egiten badu, eta irregulartasun guztiak salatu, agian epe batean geratu daiteke. Nik arrakastatzat joko nuke bost eta hamar urte arteko epe batean itxiaztea.

Alegia, helburua da ahalik eta kalte gutxien eragitea.

Zientzialariek diotenez, toxina horiek metatzen doaz; urte batzuetan eragina ez da horrenbeste nabarmenduko, baina pilotzean, kalteak oso handiak izango dira.

Bide judiziala ere hartu du auziak, Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrendieta auzipetzean. Nola interpretatu dituzue haien aurkako eta aldeko epaiak.

Nik maila judizialean gutxi dakit. Guk salaketa judizial asko jarri ditugu, baina denak galdu ditugu. Nire iritzia propioa da epaileek ez daukatela gogo gehiegirik agintean dagoen jendearekin gatazkan sartzeko. Ahal badute paso egiten dute, eta ez diote gaiari beharrezko zorrotzasunarekin heltzen.

Zure ustez, nola eragingo dio erraustegiak birziklapen tasari?

Bukatu aurretik ere hasi da jendea erlaxatzen, hasi gara hondakin gehiago sortzen. Zabalgarbi egin zenean, Bizkaian, zabor gehiago sortu zen. Erraustegiarekin ez da kontzientzia lortzen, kontrakoa baizik. Herri batek ez du ordainduko sortzen duen hondakinen arabera. Berdin du zenbat birziklatu, gipuzkoar guztion artean ordainduko dugu berdin-berdin.

Hauteskundeak datoz ate joka. Nola eragingo du horrek?

EH Bildu eta Podemosen artean gehiengo badira, ziurrenik erreferendum bat egingo dute. Ez dakit irabaziko genukeen. Oso zaila izango litzateke. Jende askorentzako egina dago, eta ez du erremediorik. Informazioa falta zaio jendeari.

Eztabaida sortzea espero al duzu?

Bai. Argumentu eta material asko dute alderdiek, erakusteko gauzak zer modutan egin dituzten. Baina ez dakit... Urte hauetan asko ez dute egin ez alderdi politikoek, ezta sindikatuek ere. Dena gure eskuetan utzi dute.



Argazki erraldoia, Donostiara gonbidatzeko

GuraSOsek argazki jendetsua atera zuen joan den igandean, Manuel Lekuona kultur etxean, larunbateko manifestaziora deitzeko.

Horrez gain, erraustegiaren kontratuaren eta enpresa eraikitzaileen komunikazio planaren berri eman zuten.

OTSAILAK 22 OSTIRALA

19:00etan
Ondoren gutizia bereziz osatutako luntx-afaria



MAIALEN LUJANBIO



AITOR MENDILUZE



UNAI AGIRRE



ONINTZA ENBEITA

SARRERAK SALGAI

HERNANI
KRONIKA
KIXKAL
ARALAR

EREÑOTZU
IRRINTZI
TABERNA

GOIZUETA
AMAIA
KAFETEGIA

ASTIGARRAGA
IKATZA

25€ 20€
DOBERAKO BAZKIDEAK
ETA KRONIKALARIAR
(KRONIKAN)

Bertso gutiziak
BASQUE CULINARY CENTEREN



ANTOLATZAILEA
Kronika

LAGUNTZAILEA
INSALUS



Gai-jartzailea
UNAI ELIZASU



Lapurditik Bizkaia arteko kostaldean barrena ibili da Maglioni hondartzetako itsas zaborrari buruzko dokumentala egiteko. HONDAR 2050

"Jada egunero jaten eta edaten dugu plastikoa"

CESARE MAGLIONI 'HONDAR 2050' DOKUMENTALAREN EGILEA

Dokumentalgileaz gain, ingurumen aholkularia ere bada italiarra. Naturaren zaintzak kezkatzen du eta bere lanetako askotan islatu du. Bizkaiko Golkoko itsas zaborrari buruzkoa dakar

Maitane Aldanondo

Harea, hondartza edota zigarro punta iradokitzen dizkio "hondar" hitzak Cesare Maglioni dokumentalgileari (Forli, Italia; 1977). Hareatza eta zabor ugari ikusiak ditu euskal kostaldean, eta kontzientziak astintzeko *Hondar 2050* dokumentala egin du. Baionatik Aretara bidaia, plastikoaren arazoaz jabetzeko. Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloan proiektatuko dute astelehenean. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

Italiar bat Euskal Herrian, ingeniari bat ikus-entzunezkoetan. Nola egin zenuen batetik bestera bidea?

Hamabost urtez ingeniari lana egin ondoren, aldaketa bat nahi nuen; jendearekin eta naturarekin harremanetan egon. Ingurumen aholkularitza ikastaro bat egin nuen, eta amaierako lanerako elkarrizketak eta bideoan jasotzea bururatu zitzaidan. Maitemindu egin nintzen lanbide honekin; eta dena uztea erabaki nuen, hizkuntza eta herrialdea aldatzea. Hala, Euskadira etorri nintzen orain hiru bat urte.

Dokumentalak plastikoa du ardatz. Nola sortu zen proiektua?

Surflaria naiz, eta plastikoarekiko kezka aurretik banuen ere, 2017an

hasi nintzen sakontzen. Uste nuen zaborraren gehiena garapen bidean dauden herrialdeetatik zetorrela, Latinoamerikatik edo Asia Hego-ekialdetik, eta hala da; baina hona etortzean ikusi nuen herrialde garatuagoetan

"HEMENGO INGURUA, MENDIA, ITSASOA, HORREN POLITA IZANIK, PENAGARRIA ZAIT ZENBAITEK HALA TRATATZEA"

ere badela zer ikasi. Hemengo ingurua, mendia, itsasoa, horren polita izanik, penagarria zait zenbaitek hala tratatzea. Dokumentala egitera animatu nintzen hainbat adiskidek lagunduta, bereziki, Óscar Tejedor dokumentalistak.

Ahalegin horren emaitza da, halaber, pasa den astean proiektatutako *La Plastikeria* fikziozko film laburra.

Biek erro bera dute. Finantzaketa kolektiboko kanpaina bat egin genuen Goteo.org eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta beharrezkoa zen sare sozialetan oihartzuna izatea, jendeak ekarpena egin zezan. Carlos Arrola dokumentaleko protagonistari bururatu zitzaion kalean zerbait egitea, han ere presente egoteko eta zuzeneko harremana izateko. Bakioko

arrandegi bat hustu eta plastikoa jarri zuen salgai, modu sinbolikoan. Une horretan ez genuen film laburra egiteko asmorik, baina grabatzea erabaki nuen. Hala sortu zen *La Plastikeria*. Hortaz, dokumentala gero etorri bazen ere, haren saihetsetik sortu zen.

Biek 2050 urteko balizko horizonte beldurgarria dute hizpide. Zergatik?

NBE txosten baten arabera, urte horretan arrain baino plastiko gehiago egongo da itsasoan. Dagoeneko plastiko asko dago munduan, eta esponentzialki ekoizten jarraitzen dugu. Mugarik gabeko kontsumo gizarte kapitalista batean bizi gara, eta uneren batean jabetu beharko dugu natura erakusten ari zaigun mugekin. Naturak ez gaitu behar, guk behar dugu;



eta zaintzen ez badugu, sufrituko dugu. Jada, egunero jaten eta edaten dugu plastikoa.

Bizkaiko Golkoan hartu duzu oinarri dokumentalerako. Zein da egoera?

Aldakorra da. Neguan grabatu nuen, gutxiago garbitu eta zabor gehiago dagoenean, itsasoa indartsuagoa delako. Horren politak diren San Juan de Gaztelugatxe edo Zumaia *flyscha* zaborrak erabat hondatuta agertzen diren irudiak ditut. Zurriolan, Kontxan edo Zarautzen, aldiz, garbitzaileak ia egunero pasatzen dira; beraz, jendea ez da konturatzen. Eta beste leku batzuetara gutxiago heltzen da itsas-korranteengatik, kostaren orografiarengatik...

Nondik dator zabor hori?

Jende gehienak uste du ez dutela beraiek sortzen, munduko beste txoko batzuetatik, barkuetatik edo itsasotik datorrela; baina ez da hala. Bizkaiko Golkoan sortutako zaborraren gehiena bertan gelditzen da, eta kanpokoa ez da sartzen, Atlantikoak dituen korranteengatik. Beraz, euskal kostaldeko zaborra hemengoa da, askoz jota, Galizia edo Kantabriakoa. Eta ez da itsasoan sortzen, % 80 lurretik dator.

Orduan, zein da arazoaren gakoa?

Jendearen ingurumen kontzientzia eza. Arazoa ez da plastikoa, arazoa gu gara. Ikusteko pintxo-potearren, inauterien edo festen ondoren osteratxoak egitea besterik ez duzu. Ohitura txarrak ere: gauzak lurrera botatzea, ez birziklatzea, hondakin ontzi horiaren arazoa... Kostan kalean lurrera botatzea maiz estolderiara edo itsasora

"BIZKAIKO GOLKOAN SORTUTAKO ZABOR GEHIENA BERTAN GELDITZEN DA, ETA KANPOKOA EZ DA SARTZEN"

doa garbitzaileak pasa baino lehen; eta lan ona egin arren, ezingo dute dena jaso.

Zein da zaborrontzi horiaren arazoa?

Heziketa falta. Jendeak uste du edozein edukiontzi bota daitekeela bertan, eta ondoren, bereizi egiten direla. Ez da hala. Botatuko asko ezin da birziklatu. Espainiako agintariak hala egitea erabaki zuten errazago izan zedin, baina, herritarrek ez dute ikasten zehazki zer birzikla daitekeen eta zer ez. European ez da hala, ez da "edukiontzien zaborrontzia". Lauzpabost marrazki izaten dute bertan zer bota daitekeen jakinarazteko. Hala, herritarrek kontziente dira egiaz birzikla daitekeena oso gutxi dela.

Datu esanguratsuak agertzen dira dokumentalean, esaterako, sortutako plastiko guztiak hemen nonbait jarraitzen duela. Jakitun al gara?

Ez dakigu zer egiten ari garen. Plastikoa material sintetikoa da eta ez doa inora. Mundu honetan ez dago nora bota, dena hemen gelditzen da. Sentsibilitate falta da. Aldatu egin beharko genuke pentsamolde hori: botatzen ari naizen hori beste zerbaitetarako baliabide izan

daiteke, berrerabili, saldu... Edo ez erosi. Plastikozko botila beharrea, kantinplora erosi, metalez egindakoa eta birziklagarria.

Arazoa konpon al dezakegu?

Uste dut jendea orokorrean ona dela eta bere familia nahiz ingurua maite dituela; beraz, gauzak ondo egiteko beharrezko informazioa badu, egingo du. Zentzu horretan baikorra naiz. Edonola, sentsibilizazio eta kontzientziario lan izugarria egiteke dago jendeak ohiturak aldatu eta errespetuz joka dezan. Haurrak, nerabeak eta gaztetxoak kontzientziatuago daude helduak baino; baina 20-25 urtekoek oso gutxi dakite eta oso gaizki jokutzen dute kalean.

Zer egin dezakegu itsasoan dagoen zaborrarekin?

Hondakinen % 70 itsas hondoan daude eta hor geldituko dira. Milioika urtetan beste geruza geologiko bat bilakatuko dira, antropozenoarena, naturaren parte izatea ahaztu zuen gizakiarena. Sakoneran edo hainbat tokitan lurpean dagoena jaso ahal izatea oso zaila da.

Eta gainerakoarekin?

Irtenbide asko daude, baina denak oinarritzen dira NBEk proposatutako eskeman: gutxitu, birziklatu, berrerabili. Birziklatzea ez da panazea, ez da irtenbidea, plastikoak hor jarraituko duelako. Gakoa murriztea da, ekoizteari uztea. Ez plastikoa bakarrik, guztia, baizik. Erosketa egiten dugunean kontzienteki egin behar dugu, ez zerbait saldu nahi digutelako; eta ontzia duena ez erosi.



Cesare Maglioni dokumentalgile italiarra TXINTXARRI

Norbanako gisa, zer egin dezakegu?

Egin dezakegun lehen gauza hondartza, herri edo mendi garbiketa batean parte hartzea da. Irtenbidea ez bada ere, sentsibilizatzen laguntzen du zaborrarekin eskuak zikintzeak. Modu aktiboan jasota, errazago barneratzen da. Aldaketarako lehen ekarpena da, nahiz eta aldaketa ez den azkarra. Gure esku dago, indar asko dugu. Ezinbestekoa da lehenagoko erosketa ohiturak berrikastea; gauzak lehen ikusten genituen modu naturalago eta integralago batean ikustea.

Eta arazoaren parte diren gainerako eragileek zer egin beharko lukete?

Norberak bere esku dagoena egin behar du. Ez dago aitzakiarik. Industriak asko ekoizten du,

baina erosleek eskatzen dutelako, bestela dirutza galduko bailuke. Supermerkatuko ur botilak erosteari utziko bagenio, industriak ekoizteari utziko lioke edo zonalde horretan saltzeari, behintzat. Horrez gain, jarrera politiko irmoa beharrezkoa da. Espainiak hartu dituen erabakiak oso ahulak eta lausoak dira. Bost zentimo kobratzea plastikozko poltsa alferrikako neurria da, ez du ez erostera sustatzen jendea. Debekatu egin behar da eta jendeari esan oihalezko, plastiko gogorrezko edo bestelako poltsak etxetik ekartzeko. Hainbatetan atzetik badago ere, Italiak orain dela 20 urte legez kanpo utzi zituen. Dendetan patata fekulaz egindakoa dituzte, doakoak.

Urduritasunak zapuztu dio finala Arteagari

Finalean ez du eroso jokatu Lasarte-Oriako pilotariak, eta 14-22 galdu du Gipuzkoako Bigarren Mailako txapelketa. "Ohikoak ez diren hutsegiteak egin ditut". Ligaxkako partida guztiak nagusitasunez irabazi ditu, Naroa Agirre atzelariarekin batera

Adrian Garcia

Bigarren mailako binakako ligaxkan ez dute arerorik izan Ane Arteagak eta Naroa Agirrek. Bikote guztiak nagusitasunez garaitu dituzte, baina finalean ez zuten eroso jokatu. Norgehiagoka parekatua izan arren, 14-22 irabazi zuten Alaitz Badiolak eta Usue Zubizarretak. "Urduritasunak eragina izan du, gure hutsegiteengatik galdu dugu", kontatu dio Arteagak berak TXINTXARRI-ri.

Gipuzkoako Pilota Federazioak lehen aldiz antolatu ditu emakumeen txapelketak, eta Zestean jokatu zituzten finalak, ostiral iluntzean. Lehenengo mailako txapelketa ere erabaki zen Zestean; Urien-Espinar bikoteak eraman zuen txapela.

Edonola ere, txapelketan erakutsitako jokoarekin pozik agertu da Lasarte-Oriako pilotaria. "Nahiko erraz irabazi



Ane Arteaga, finaleko une batean. UROLA KOSTAKO HITZA

ditugu ligaxkako partida guztiak, baita finala galdu genuenen aurka ere". Txapelketa eskuratzeko itxaropena bazuten, horrenbestez, baina une erabakigarrian ez zuten asmatu. "Oso urduri jarri nintzen.

Normalean egiten ez ditudan hutsegiteak egin nituen". Aurrea hartu zuten hasieratik Badiolak eta Zubizarretak, eta are gehiago aztoratu zituen Arteaga eta Agirre. "Beti atzetik aritu ginen, eta ez genuen haiek

markagailuan harrapatzea lortu".

Tantoak oso borrokatuak izan ziren, eta, alde horretatik, ikusleek partida orekatuaz gozatu zuten. Baina tantoak garaileen alde erabaki ziren gehienetan. "Haiek ezer handirik egin gabe irabazi ziguten".

Bikoteak ez du izan aukera gehiegirik elkarrekin entrenatzeko. Izan ere, Agirre atzelaria zestoarra da, eta partidatan bakarrik jokatu dute batok bestearekin. Edonola ere, ongi moldatu dira frontoian. "Lehenengo aldiz jokatu dugu elkarrekin, ez genuen elkar ezagutzen; baina ondo ulertu dugu elkar". 15 urte besterik ez ditu Agirrek. "Indartsu dator, emango du zeresana", esan du Arteagak.

Momentuz alde batera utziko ditu txapelketak Arteagak. Izan ere, Emakume Master Cup binakako txapelketa jokatzeko prest zegoen, baina haren bikoteak, Amaia Vicario, eskumuturrean min hartu du. Iazko binakako txapelduna da Vicario. "Lehenengo kanporaketa pasa gabe bigarrenen sartzeko aukera eman ziguten, ea horrela denbora ematen zion errekuaratzeko. Baina ez da iritsiko, luzerako baitu". Horrenbestez, litekeena da udako txapelketak iritsi arte ez jokatzeko beste partida ofizialik.

Bestalde, Axier Arteaga anaiari antzeko zerbait gertatu zitzaion, profesionaletako binakako txapelketan: une erabakigarrian ez zuen asmatu. Aimar Olaizolaren ordeztatu zen txapelketan, lau hilabeterako frontoitik urrunduta egongo baita goizuetarra. Baina ez zuen ongi aprobeztatu aukera pilotariak; Jon Ander Albisu atzelariak eta berak hutsegite asko egin zituzten, eta 22-15 irabazi zuten Iñaki Artolak eta Jon Mariezkurrenaren.

Promozioko binakakoa

Ondorioz, Olaizolaren beste ordezkoko bat aukeratu du enpresak: Victor Esteban izango da hurrengo partidaren Albisurenkin batera.

Arteagak Urretabizkaiarekin batera jokatu du promozioko bigarren mailako binakako partida. Ugalde eta Jaunarena izango dituzte aurrez aurre, igandean, 17:00etan, Beotibarko frontoian, Tolosan. Zaila dute aurrera egitea, laugarren sailkatu beharra baitute ligaxkan. Horretarako, beste bikoteen emaitzaren esperoan egon beharko dute.

AXIER ARTEAGAK ALBISUREKIN GALDU ONDOREN, PROMOZIOKO PARTIDA JOKATUKO DU

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Lagun Onak CD Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Sto. Tomas Lizeoa KE Igandea. 17:30. Michelin Kirol gunean.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Asoleus CF Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Igandea. 16:30. Azkoagain, Oñatin.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Anaitasuna CD Larunbata. 12:00. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Antiguoko KE Larunbata. 10:30. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Zarautz KE B - Ostadar SKT B Larunbata. 09:30. Asti-txiki, Zarautzen.

INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA
Lengokoak KE - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Cesar Benito, Donostian.
INFANTIL TXIKIAK, PARTE HARTZEA
Sporting de Herrera - Ostadar SKT Igandea. 10:15. Herrera, Donostian.
INFANTILEN 1. MAILA
Udarregi Usurbil B - Ostadar SKT B Larunbata. 11:45. Harane, Usurbilen.
SANSE A - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 13:15. Felix Garin, Donostian.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Izengabe - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Bar Buenetxea - Insausti taberna Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Asador Irigoien - Trumoi taberna Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Avenida taberna - Viña del Mar Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
GIPUZKOAKO SENIORRA
TEEP Tolosaldea - Garaio Taberna Igandea. 11:15. M. Chourraut kiroldegian.

Aldaz Klinika- Anoeta FT Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO II. MAILA
ISU Leihoak - Egarrri taberna Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - Antiguoko KE Bellmer Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO KADETEAK
Lauburu KE - Balerdi Harategia Larunbata. 12:00. Belabieta Kir., Ibarra.
SASKIBALOIA
SENIOR EMAKUMEZKOAK
Ostadar SKT - CD Internacional Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Mekalki Aloña Mendi KE Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Zast Zarautz ZKE Larunbata. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
JUNIOR PARTE HARTZEA
CD Internacional - Ostadar SKT B Larunbata. 09:30. Mons kiroldegia, Donostian.

TIPO 90 Askatuak - Ostadar SKT B Igandea. 10:00. Paco Yoldi, Donostian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Oiarso SKT - Ostadar SKT A Larunbata. 12:30. Don Bosco, Erreterian.
KADETE PARTE HARTZEA
Ibaeta Bera Bera - Ostadar SKT B Larunbata. 16:00. Benta Berri kiroldegia, Donostian.
PILOTA
UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA
Intza 1 - Behar Zana Ostirala. 20:10. Michelin Kirol gunean.
Hernani - Intza 2 Larunbata. 16:00. Udalekoa, Hernanin.
LASTERKETA
IRUNGO MARATOI ERDIA
Herriko hainbat korrikalarik maratoni erdian eta 10 km proban parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Irunen.

BOLA JOKOA
BIKOTEKAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko kideek finala jokatu dute. Igandea. 09:00. Zerainen.
IPAR MARTXA
ASPANOGIREN ALDEKO BIRA
Saguesetik Haize Orrazira 6,1 Km martxa minbizia duten haurren alde. Igandea. 11:00. Sagues, Donostian.
ERRUGBIA
18 URTE AZPIKOA
Garabi Ordizia RT - Zarautz Beltzak Larunbata. 17:00. Altamira, Ordizian.
16 URTE AZPIKOA
Labe Lan Ordizia RT - Zarautz Beltzak Larunbata. 15:30. Altamira, Ordizian.
14 URTE AZPIKOA
Babyauto Zarautz Beltzak - Iruña RT Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.



Lehiatua izan zen euskal taldeen arteko derbia. Etzi kopako finalerdiak jokatuko ditu Realak Anoetan. REAL SOCIEDAD

Partidak bost minutu gehiago iraun izan balitu...

Futbol partida ona eta giro hobea Anoetan: bina berdindu dute Realak eta Athleticcek. Zuri-gorriak 0-2 aurreratu dira lehen zatian eta norgehiagoka berdindu dute donostiarrek bigarrenean. Kopako finalerdiak jokatuko dituzte igandean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Partidak bost minutu gehiago iraun izan balitu... Realak irabaziko zuen ziur aski. Aukerak sortu zituelako hirugarren gola sartzeko, eta zuri-gorriek baino hobeto bukatu zutelako pasa den igandeko derbia. Ezin izan zuten bizkaitarren atea hirugarren aldiz zulatu, ordea, eta puntu batekin konformatu behar izan zuten. Ez da batere sari txarra, kontuan hartuta 0-2 galtzen joan zirela atsedenaldira. Iraia Iparragirre herritarra ez zen hasieratik aritu; azkeneko bost minutuak jokatu zituen.

Eguraldi kaskarra ez zen aitzakia izan, eta Anoetako harmailetan askoz ere eserleku gehiago zeuden beteta hutsik baino. 21.000 zale inguruk utzi zituzten eztaurriak goiz hotz eta euritsu horretan.

Berehala berotu ziren zaleak, partida ona eta emozioz bete izan zelako. Askoz hobeto zelairatu zen Athletic: hirugarren minutuan sartu zuen 0-1eko

Garcia. Realak aukerak izan zituen neurketa berdintzeko, baina ez zuen asmatu. Lehen zatia bukatzeaz zela, bigarrena sartu zuten bizkaitarrek, kontraeraso bizkor batean.

Emaitza txar bat bigarren zatian iraultzeko urrezko legeetako bat da lehenengo gola


ahalik eta azkarren sartzea. Esan, eta egin: Nerea Eizagirrek gol ederra sartu zuen 47. minutuan. Donostiarrek sortu zituzten abagune garbienak, eta merezitako saria jaso zuten 78. minutuan; Carla Bautistak sareetara bidali zuen Manu Lareoren erdiraketa bat.

Erregional Gorengoa, geldiezin

Trintxerpe 1-4 Ostadar SKT. Urrezko hiru puntu ekarri zituen herrira bueltan Erregional Gorengoak. Erik Matek, Alexander Rodriguezek, Adei Zarrak eta Jon Lopezek sartu zituzten lasarteoriarren lau golak. Hiru partida irabazi dituzte urdin-beltzek jarraian, eta gero eta gertuago ikusten dituzte goiko postuak. 34 puntu dituzte Asier Aizpurua eta Ander Rekondoren mutilek, iaz bildutakoak baino hiru gehiago, eta hamar jardunaldi falta dira oraindik. Zazpigarren postuan dira sailkapenean, baina sei puntutara dago bigarrena. Gure Txokoaren aurka jokatuko dute igandean, 17:30ean.



TXINTXARRI



TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak!

Txantxoz jantzeria animatu nahi zaituztegu.

Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

Eraman beharrekoa:

Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Noiz: Otsailaren 16an, 17:00etatik 18:30era eta otsailaren 20an, 17:30etik 19:00etara, anbulategiko eraikineko 2.pisua.

Informazioa eta izen-ematea:

Ttakunen, kultura@ttakun.eus edota 943 37 14 48 zenbakian. edo whatsapp-ez 695785389



Asteburu gazi-goza errugbi taldeentzat

Babyauto Zarautz Beltza errugbi taldeko seniorrek ez dute zorterik izan asteburuan. Biek ala biek galdu egin dute Bera Bera eta Sarako Izarraren aurkako partidetan. 18 eta 16 urtez azpikoak, aldiz, aise gailendu zaizkie Gernika-Elorrioko jokalariei

Txintxarri

Asteburu gazi-goza izan da Babyauto Zarautz-Beltzak errugbi taldearentzat. Seniorrei alde txarra egokitu zitzaien oraingoan, bi taldeek galdu egin baitzuten. Gazteenek, aldiz, garaipen bikoitza lortu zuten Gernika-Elorrio taldeen kontra.

Astin, Senior Ohorezko B Mailako taldeak Bera Bera izan zuen aurkari, ia klasiko bihurtu den derbian. Ander eta Xabier Rekondo anaiek, Adrian Apaolazak eta Gorka Aristondok partida jokatu zuten. Ondo aritu ziren donostiarrak eta beltzek ez zuten asmatu, saiatu arren. Azken emaitza 7-36 izan zen.

Euskal Ligako 2. mailan, senior B taldeak Sarako Izarra izan zuen aurrez aurre, mugaren beste aldean. Taldeak sailkapenaren bi muturretan daude, eta lapurtarrek argi utzi zuten zergatik diren liderrak, 75-0 irabazita. Beltzek lehen zatiko 30. minutura arte eutsi zioten jokoari, baina, orduan,



Euskal Ligako seniorrek ez zuten zorterik izan asteburuan. TXINTXARRI

etxeke jokalariek euren onena ematen hasi ziren.

Asteburuko poza 18 eta 16 urtez azpiko taldeek Michelinen Gernika-Elorrioren aurka lortutako garaipenak izan ziren. Zaharrenen norgehiagoka ondo hasi zuten bizkaitarrek, baina

denbora pasa ahala etxekeak nagusitu ziren. Eraso bloke on batekin 77-26 irabazi zuten. Ondoren, 16 urte azpikoek ez zion aukerarik eman bizkaitarrei. 21 entsegu egin zituzten eta bakararra ez zuten jaso. Azken emaitza 133-0 izan zen.

Beñat Carbayeda Pistako Kopako bigarren postuan dago

Asier Pozo bosgarrena da Galapagarren jokaturako saioaren ondoren. Euskadiko taldea irabazle izan da

Txintxarri

Ondo aritu ziren herriko txirrindulariak Pistako Espainiako Koparen bigarren saioan. Galapagarren, Madrilen, lehiatu ziren Beñat Carbayeda eta Haimar Etxebarria kadeteak; eta Asier Pozo nahiz Jaime Romero juniorrak Euskadiko selekzioarekin. Taldea garaile izan zen, puntu bakarreko aldearekin gailenduta Madrigoari. Martxo bukaeran jokatu duten azken saioaren faltan, Carbayeda sailkapen



Beñat Carbayeda txirrindularia. TXINTXARRI

orokorreko bigarren da iraupen txirrindulari kadeteen artean, 21 punturekin. Juniorretan, berriz, zortzina puntu dituzte Pozok eta Romerok, bosgarren eta seigarren. Zortzigarren da Etxebarria abiadura sailkapenen.

Iraupen txirrindulariak puntuazioa, *scratch* eta *tempo* probetan lehiatu zuten. Bakoitzeko sailkapenaren arabera, saiko puntuak banatu zituzten. Zortzi lortu zituen Carbayedak, laugarren amaituta; Romerok bere mailan bezala. Pozo, aldiz, esku hutsik joan zen, bederatzigarren sailkatuta. Abiadura probetan, berriz, 200m. eta abiadura probetan seigarrena izan zen Etxebarria, eta *keirin* proban, aldiz, bigarrena. Hortaz, Kopako bigarren saioa seigarren eta puntu gabe bukatu zuen.

Eskalada ikastaroa 9-12 urte bitarteko haurrentzat

Hilaren 23an egingo dute doako saioa; parte hartzaile kopurua mugatua da, izena eman behar da kiroldegian

Txintxarri

Eskaladan lehen pausoak ematen hasteko saio berezia antolatuta dute 2007-2010 urteen artean jaiotako neska-mutilentzat. Jardunaldia hilaren 23an egingo dute Michelingo kirol guneko rokodromoan, 16:00etan hasita. Interesa dutenek kiroldegian eman behar dute izena. Parte hartzaile kopurua mugatua denez, izen-emate hurrenkera kontuan hartuko da. Jarduera



Haurrei bideratutako ikastaroa da. OSTADAR

doakoa da udal kirol azpiegituren bazkideentzat.



TXINTXARRI

Eneko Apezetxea, hamargarren

Eneko Apezetxea Elola arkulari lasarteiarra Benalmandenan, Malaga, jokaturako Espainiako Txapelketan hamargarrena izan da. Diarco klubeko 11 urteko gaztetxo arku kurbatu olinpiarrean lehiatu da, ia 90 partaideko kategorian. Lehen txanda ona eginda, binakako fasera sailkatu zen. Lehen aurkariari gailendu zitzaion, baina bigarrenaren kontra galdu zuen.

Hainbat herritarrek parte hartu dute Erregetako krosean

Raul Gomez Margallo eta Maite Salazar izan ziren ibilbideko 10 kilometroak osatzen lehen lasarteoritarrek

Txintxarri

Igandeko eguraldi txarrari aurre eginez, 11 lasarteoritarrek parte hartu zuten Gimnastika Uliak urtero antolatzen duen Erregetako krosean. Raul Gomez Margallo izan zen horien artean helmuga zeharkatzen lehena. Donostian barrenako 10 kilometroko ibilbidea 35:52-ko

denboran osatu zuen, 83. sailkatuta. Denboran gertu heldu ziren Gorka Gil Martin, 37:40; Jon Altuna eta Jon Presa, biek 37:55-eko markarekin. Emakumezkoek dagokienean, aldiz, Maite Salazar izan zen lehen herritarra, 41:31, eta Mari Carmen Olasok 42:40 denbora egin zuen.

ZORION AGURRAK




Hodei
Zorionak familia guztiaren partetik!! Muxu handi bat.



Uxue
Zorionak, maitea, zure 10. urtebetetzean. Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



Aiara
Gure etxeko printzesari zazpi muxu potolo. Zorionak Aiara.



Jon Pello
Zorionak maite!! Errekuperatu azkar berriro ere egurrean ibiltzeko frontoian. Hamaiketakoaren zain gaude. Ttakuneko lankideak.

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Ane Quiroga Artola. Otsailaren 8an.

HILDAKOAK

Mª Luisa Salsamendi Recalde. Otsailaren 14an.
Maria Isabel Murguiondo Echeverria. Otsailaren 13an.
Eduardo Sanchez Calahorra. Otsailaren 8an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 15 GIL
Larunbata, 16 GANDARIAS-URIBE
Igandea, 17 GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 18 ACHA-ORBEA
Asteartea, 19 URBISTONDO
Asteazkena, 20 GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 21 ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).


TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233


LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16




Igandea, 17




Astelehena, 18



Asteartea, 19



Asteazkena, 20



SUDOKUA

4			3	8			7	
9	3	2			7	8		4
7							9	
5		7			2	4		
	1	4	9			5	3	
3				4		7		1
	4	5		6				
6			8		5	2		3
		3			4	1	5	6

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Zabaleta auzoan. Bi logela, komuna egongela eta sukaldia. Mikelengatik galdetu. Telefonoa: 603 643 734.

LANA

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Telefonoa: 663488438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. 677 76 86 82.

ere. Orduka edo interna. 677 76 86 82.

Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 671 79 54 84.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA


DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Astelehenetik aurrera eduki eta itxura berria izango du aldizkariaren webgunea. TXINTXARRI

Badator TXINTXARRI-ko webgune berria

Astelehenetik aurrera sarean izango da TXINTXARRI-ko atari berria. Barrutik eta kanpotik eraberritua dator, atal, eduki eta antolaketa aldatuta. Horrez gain, egungo joerekin bat eginez, sakelako telefonoetan eta tabletatan egoki ikusteko prestatu dute

Txintxarri

Urte aldaketak zaharberritzeko mugarrria izan ohi dira eta haren bueltan jaso zuen TXINTXARRI aldizkariak bere webgune berria. Azken asteetan dena prest uzteko beharrezko ukituak eman dizkiote CodeSyntax etxeko kideek, apain-apain utzi arte. Aurreikusitakoa baino pittin

bat geroago bada ere, egun gutxi barru izango duzue irakurleok hura ezagutzeko eta ikusteko parada. Izan ere, astelehenean bertan abian izango baita nobedade eta erabilera berrieekin.

2007an sarera jauzi egin zuen Lasarte-Oriako aldizkariak, eta ordutik, unean uneko joeretara egokitze ahalegina egin du,

hainbatetan aldaketak burututa. Azken boladan, sakelako gailuak tokia kentzen joan zaizkio mahai gaineko ordenagailuari, eta Interneten aritzeko tresna nagusi bilakatu dira. Horregatik, tabletatan nahiz sakelako telefonoetan ondo bistaratuko den diseinua prestatu dute, eroso irakurtzeko. Halaber, ikus-

ZERBITZUEN ATALEAN GEHITU DUTE AZOKA TXIKIA, EGURALDI IRAGARPENA ETA GIDA KOMERTZIALA

entzunezko edukiak kalitatea onean ikusteko ere atondu dute webgunea, beti ere, karga azkar eginda. Beraz, hilaren 18tik aurrera txintxarri.eus-en eskuko gailuekin sartzen zarenok aldea igarriko duzue.

Sakontzea erraztu

Lehen begi kolpean azalean nabaritu da berritasuna, itxura aldatuta baitator; bestelako egitura, atalak moldatuta eta gehituta. Albisteak, aldiz, bloketan banatuta agertuko dira, garrantziaren edo berritasunaren arabera. Halaber, menu berriek nabigazioa erraztuko dute: gaikako kanalak, argazki galeriak... Baita elementuak gai beraren inguruko beste batzuekin lotzea ere. Horren bidez, sakondu nahi dutenei beste eduki batzuk iradokiko zaizkie; albiste zaharrago, elkarrizketa, bideo, argazki galeria edo PDF batera jauzia klik bakarrera jarrita.

Hala ere, antolaketa berria baino askoz gehiago dakar webgunea, aldaketa sakonekoa baita. Zerbitzuetan, esaterako, egun badiren zorion-agurrekin eta eskelekin batera, eguraldi iragarpena eta Lasarte-Oriako dendek nahiz profesionalek osatutako gida komertziala ere eskuragarri izango dira. Halaber, papereko Azoka txikiak ere txoko bat izango du aurrerantzean sarean. Beharrek eta nahiek bat egiten dute atal honetan, zerbitzuak edota ondareak

salerosi ahal izango dituzte iragarkien bidez. Era berean, agenda ere osatuagoa izango da. Besteak beste, jarduera aurrera eramango duten tokiaren kokapen mapa ere agertuko baita, lekua erraz eta azkar topatu ahal izateko.

Hobetzeaz gain, altxorrek ondo zaindu behar dira. Horregatik, hemeroteka bere horretan mantenduko da. Hala, zerbaki zaharrak PDFan irakurri eta haien edukian bilaketak egiteko aukera izango da aurrerantzean ere. Hitz gakoa idatzita, 18.000tik gora albiste dituen datu basea arakatzeko aukera ematen du bilatzaileak.

Herritarren parte hartzea sustatzeko komunitatea atalak ere indarra hartuko du, unean-unean aktibatuko diren hainbat aukerekin: inkestak, porrak, elkarrizketa digitalak...

Nahiz eta barrutik zein kanpotik eraberritu, badira mugiezinak ere. Lasarte-Oriari eta bere herritarrei lotutako albiste guztiak irakurleoi eskura jartzeko helburua, kasu.



Bereziki prestatua egongo da sakelakoetan ikusteko. TXINTXARRI

DESKONTU BEREZIAK HERRIKO KOMERTZIOEI

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

- PUBLIZITATEA
- PUBLIERREPORTAJEAK
- PUBLIZITATEA INTERNETEN
- GIDA KOMERTZIALA *berria!*
- ESKELAK

PUBLIZITATE
KANPAINA
BERRIA MARTXAN!
ESKATU TARIFAK!

TARIFAK ESKATZEKO: publizitatea@ttakun.eus 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66 Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria